2. En el ejercicio 2026, las entidades locales y sus entidades dependientes clasificadas en el sector administraciones públicas, de acuerdo con la definición y delimitación del Sistema Europeo de Cuentas, que liquiden el ejercicio 2025 con ahorro neto positivo, calculado en la forma que establece el artículo 55 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, podrán concertar nuevas operaciones de crédito a largo plazo cuando el volumen total del capital vivo no exceda del 60 por ciento de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados, con sujeción, en su caso, a la Norma

**IV. KAPITULUA**

**43. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Udal Finantzaketarako Foru Funtsari dagokionez -GZF-.**

1. Udalek zerga itunduetan -GZF- duten partaidetza 11.258.193,00 eurokoa da, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren 41.2 artikuluan zehaztutako Baliabide Erabilgarrien % 0,37ko portzentajea aplikatuta.

2. Gizarte Zerbitzuen Udal Finantzaketarako Foru Funtsa (GZF) udalerriek mendekotasun-egoeran dauden I., II. eta III. mailako pertsonei arreta emateko egiten duten ahaleginaren arabera banatuko da, bai eta mendekotasun-arriskua justifikatzen duten 23. eta 24. mailen arabera ere. Horretarako, mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dauden pertsonen 2025eko urtarrilaren 1eko erroldatze-datuak hartuko dira.

3. Udalerriek 2026ko lehen seihilekoan jasoko dituzte konturako entregak. Hala ere, udalerriko gizarte-zerbitzuak mankomunitatean eskaintzen badira, dagokion mankomunitateak jasoko ditu konturako entregak. Zerbitzuak modu mankomunatuan ematen dituen udalerriak konturako entregak zuzenean jasotzea eskatu ahal izango du noiznahi.

4. Gizarte Zerbitzuen Udal Finantzaketarako Foru Funtsa -GZF- likidatuko da Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeei egindako ekarpenen behin betiko likidaziotik eratorritako baliabide erabilgarriak ezagutu ondoren. Likidazio hori Udal Finantzaketarako Foru Funtsarekin - Udalkutxarekin batera egingo da.

5. Likidazioak udaleko gizarte zerbitzuak ematen dituzten udalerri edo mankomunitateei egingo zaizkie. Zerbitzuak modu mankomunatuan ematen dituen udalerriak likidazioa zuzenean jasotzea eskatu ahal izango du noiznahi.

**V. KAPITULUA**

**Konpentsazioa.**

**44. artikulua. Zorren konpentsazioa.**

Udalek Bizkaiko Foru Aldundiarekin izan ditzaketen zorrak kobratzeko, konpentsazioa erabiliko da, alegia, Aldundiak udalei ordaindu beharrekotik kenduko da, baldin eta konpentsatu beharreko zor horren berri hilabete lehenago ematen baldin bada. Nolanahi ere den, epe hori laburtu egin daiteke, udal bakoitzak horretarako oniritzia ematen badu, edo aurrerakinei badagokie.

**VI. KAPITULUA**

**Finantza babesaren araubidea.**

**45. artikulua. Toki entitateen zorpetze eragiketak.**

1. 2026ko ekitaldian, toki entitateek eta horien menpeko entitate Europako Kontuen Sistemaren definizio eta mugaketari jarraikiz administrazio publikoen sektorean sailkatuek epe laburreko kreditu-eragiketak hitzartu ahal izango dituzte, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauarekin bat etorrita.

2. Toki entitateek eta haien menpeko entitateek, Europako Kontuen Sisteman ezarritako definizioaren eta zehaztapenaren arabera administrazio publikoen sektorean sailkatuek, 2025eko likidazioan aurrezki garbi positiboa lortzen badute (Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 55. artikuluan ezarri den bezala kalkulatu behar da), 2026ko ekitaldian epe luzerako kreditu berriak itundu ahal izango dituzte, baldintza hau betez gero: kapital biziaren guztirako bolumena ezin da izan likidatu edo sortutako sarrera arrunten %60 baino gehiago (kontabilitateko egoera-orri kontsolidatuen arabera). Kreditu-eragiketa horietan Toki Ogasunei buruzko

Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales y a la Normativa de Estabilidad Presupuestaria.

La finalidad de la operación podrá ser tanto la financiación de sus inversiones, como la modificación o sustitución total o parcial de operaciones preexistentes a largo plazo.

Igualmente podrá financiar tanto gastos corrientes como el remanente de tesorería negativo derivado de la liquidación 2025, con las condiciones reguladas respectivamente en el artículo 34 y 49 de la Norma Foral 10/2003 de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

3. En el ejercicio 2026, las entidades locales y sus entidades dependientes clasificadas en el sector administraciones públicas, de acuerdo con la definición y delimitación del Sistema Europeo de Cuentas, que liquiden el ejercicio 2025 con ahorro neto positivo y que tengan un volumen total de capital vivo superior al 60 por ciento pero inferior o igual al 110 por ciento de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados, podrán concertar operaciones de endeudamiento a largo plazo previa autorización del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales con sujección, en su caso, a la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales y a la Normativa de Estabilidad Presupuestaria.

   La finalidad de la operación podrá ser tanto la financiación de sus inversiones, como la modificación o sustitución total o parcial de operaciones preexistentes a largo plazo.

   Igualmente podrá financiar tanto gastos corrientes como el remanente de tesorería negativo derivado de la liquidación 2025, con las condiciones reguladas respectivamente en el artículo 34 y 49 de la Norma Foral 10/2003 de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

4. En el ejercicio 2026, las entidades locales y sus entidades dependientes clasificadas en el sector administraciones públicas, de acuerdo con la definición y delimitación del Sistema Europeo de Cuentas que liquiden el ejercicio 2025 con ahorro neto negativo calculado en la forma que establece el artículo 55 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales y/o que presenten o un volumen total de capital vivo superior al 110 por ciento de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados, solo podrán modificar o sustituir las operaciones de crédito a largo plazo vigentes previa autorización del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

5. Para la determinación de los ingresos corrientes a computar en el cálculo del ahorro neto y del nivel de endeudamiento, se deducirá el importe de los ingresos afectados a operaciones de capital y cualesquiera otros ingresos extraordinarios aplicados a los capítulos 1 a 5 que, por su afectación legal y/o carácter no recurrente, no tienen la consideración de ingresos ordinarios.

6. Para la determinación de los gastos corrientes a computar en el cálculo del ahorro neto, se deducirá los gastos extraordinarios aplicados a los capítulos 1 a 4 que, por su afectación legal y/o carácter no recurrente, no tienen la consideración de gastos ordinarios.

7. A efectos del cálculo del capital vivo se tendrá en cuenta el importe a la fecha de la solicitud de la autorización o el informe y se considerarán:

   a. Las operaciones formalizadas y no amortizadas.

   b. El riesgo deducido de avales,

   c. Las operaciones para las que se solicita informe o autorización.

abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Arautegia aplikatuko dira.

Eragiketaren xedea inbertsioen finantzaketa zein lehendik ere badiren epe luzeko eragiketen guztirako aldaketa edo ordezpen partziala izan daiteke.

Halaber, 2025eko likidazioaren ondoriozko gastu arruntak eta diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatu ahal izango ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. eta 49. artikuluetan, hurrenez hurren, arautūtako baldintzekin.

3. Toki entitateek eta haien menpeko entitateek, Europako Kontuen Sisteman ezarritako definizioaren eta zehaztapenaren arabera administrazio publikoen sektorekoak direnek, 2025eko likidazioan aurrezki garbi positiboa lortzen badute eta beren guztirako kapital bizia likidatu edo sortutako sarrera arrunten %60-110 bitartekoa bada (kontabilitateko egoera-orri kontsolidatuen arabera), 2026ko ekitaldian epe luzerako zorpetze-eragiketak egin ahal izango dituzte, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak baimena emanez gero. Eragiketa horietan, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Arautegia aplikatuko dira.

   Eragiketaren xedea inbertsioen finantzaketa zein lehendik ere badiren epe luzeko eragiketen guztirako aldaketa edo ordezpen partziala izan daiteke.

   Halaber, 2025eko likidazioaren ondoriozko gastu arruntak eta diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatu ahal izango ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. eta 49. artikuluetan, hurrenez hurren, arautūtako baldintzekin.

4. 2026ko ekitaldian, Europako Kontuen Sisteman ezarritako definizioaren eta zehaztapenaren arabera administrazio publikoen sektorean sailkaturiko toki entitateek eta haien menpeko entitateek, baldin Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 55. artikuluan xedaturiko moduan kalkulaturiko aurrezki garbi negatiboarekin likidatzen badute 2025eko ekitaldia eta/edo guztirako kapital biziaren bolumena handiagoa badute ezen ez kontabilitateko egoera-orri kontsolidatuen arabera likidatu edo sortutako diru-sarrera arrunten % 110, indarreko beste epe luzerako kreditu-eragiketak aldatu edo ordeztu baino ezin izango dute egin, aurretik Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak baimenduta.

5. Aurrezki garbia eta zorpetze-maila kalkulatzeko, sarrera arrunten zenbatekoa kalkulatu behar da, eta, horretarako, zenbateko hauek kendu behar dira: kapital-eragiketei atxikitako sarrerak eta beste edozein diru-sarrera ezohiko, 1 - 5 bitarteko kapituluei aplikatua, baldin eta, legez atxikita daudelako eta/edo ez direlako behin eta berrizkoak, ez badu diru-sarrera arruntaren izaera.

6. Aurrezki garbiaren kalkuluan zenbatu beharreko gastu arruntak zehazteko, 1-4 kapituluei aplikatutako aparteko gastuak kenduko dira, baldin eta, legez atxikita daudelako eta/edo behin eta berrizkoak ez direlako, gastu arruntzat hartzen ez badira.

7. Kapital bizia kalkulatzeko, baimena edo txostena eskatzen den eguneko zenbatekoa hartuko da kontuan, eta hauexek hartuko aintzat:

   a. Eragiketa formalizatu eta amortizatu gabeak.

   b. Abaletatik kendutako arriskua,

   c. Zer eragiketa egiteko eskatzen den txostena edo baimena.

No se incluirán los saldos que deban reintegrar las entidades locales derivados de las liquidaciones definitivas del Fondo Foral de Financiación Municipal-Udalkutxa, ni las operaciones a refinanciar.

8. Se considera modificación o sustitución de operaciones preexistentes a largo plazo, a efectos de lo establecido en los apartados 2, 3 y 4, aquellas en las que el coste resultante de la operación no supere financieramente el coste de la operación preexistente.

9. La concertación de cualesquiera operaciones deberá acordarse previo informe de la intervención en el que se analizará, especialmente, la capacidad de la entidad local para hacer frente, en el tiempo, a las obligaciones que de aquéllas se deriven para ésta.

10. En el caso de las operaciones formalizadas al amparo de la Norma Foral 5/2012, de 21 de junio, por la que se modifican, para el ejercicio 2012, las limitaciones de endeudamiento de los ayuntamientos, con el fin de poder financiar el abono de determinadas deudas contraídas en materia contractual, y las operaciones formalizadas al amparo de la Norma Foral 6/2013, de 12 de junio, por la que se modifican, para el ejercicio 2013, las limitaciones de endeudamiento de los ayuntamientos y sus entidades dependientes, con el fin de poder financiar el abono de determinadas deudas, la refinanciación se instrumentará a través del convenio suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y las entidades financieras firmantes del mismo.

11. Para la formalización de nuevas operaciones de crédito a largo plazo será preciso:

    a. El informe de la Intervención local sobre la propuesta elaborada por la tesorería de concertación o modificación de operaciones de endeudamiento.

    b. La adopción del acuerdo concertación de la operación de crédito a largo plazo por parte órgano competente.

    c. La aprobación por el órgano competente de un plan de reducción de capital vivo, previamente informado favorablemente por el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia, en el que se garantice, en un plazo máximo de tres años, reducir el volumen de capital vivo al 110% de los ingresos por operaciones corrientes consolidados, en caso de que sea superior.

    d. La aprobación por el órgano competente de un plan de reducción de capital vivo, informado favorablemente por el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, en el que se garantice, en un plazo máximo de tres años, reducir el volumen de capital vivo al 60% de los ingresos por operaciones corrientes consolidados, en caso de que sea superior al 60% pero inferior o igual al 110%.

    e. La autorización del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales o, en su caso, el informe preceptivo no vinculante al que se refiere el artículo 55.3 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales.

    f. La intervención de la entidad local deberá emitir un informe anual sobre el cumplimiento de los planes de reducción de capital vivo. De dicho informe se dará cuenta al Pleno de la entidad local para su conocimiento, y al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia.

Ez dira kontuan hartu behar Udalkutxa-Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren behin betiko likidazioen ondorioz toki entitateek itzuli beharreko saldoak, ez eta birfinantzatu beharreko eragiketak ere.

8. 2., 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoaren ondorioetarako, hauexek hartzen dira lehendik dauden epe luzeko eragiketen aldaketatzat edo ordezkapentzat: eragiketaren ondoriozko kostuak aurretik zegoen eragiketaren kostua gainditzen ez duten eragiketak

9. Eragiketa oro itundu baino lehen, kontu-hartzailetzak txostena egin beharko du, eta txosten horretan bereziki aztertuko da toki entitateak zer gaitasun duen denboran zehar eragiketen betebeharrei, toki entitateari doazkienei, aurre egiteko.

10. Ekainaren 21eko 5/2012 Foru Arauaren babespean egindako eragiketen kasuan (Foru Arau horren bidez udalen zorpetze-mugak aldatu ziren 2012 ekitaldirako, kontratuen alorrean onartutako zor zehatzak ordaindu ahal izateko) eta ekainaren 12ko 6/2013 Foru Arauaren babespean egindako eragiketen kasuan (Foru Arau horren bidez udalen eta haien menpeko erakundeen zorpetze-mugak aldatu ziren 2013 ekitaldirako, zor zehatzak ordaindu ahal izateko), birfinantzaketa Bizkaiko Foru Aldundiaren eta zenbait finantza-entitateren artean sinatutako hitzarmenaren bitartez gauzatuko da.

11. Epe luzerako kreditu-eragiketa berriak formalizatzeko, hauek behar dira:

    a. Tokiko Kontu-hartzailetzaren txostena, zorpetze-eragiketak hitzartzeko edo aldatzeko diruzaintzak egindako proposamenari buruzkoa.

    b. Organo eskudunak epe luzerako kreditu-eragiketa ituntzeko erabakia hartzea.

    c. Organo eskudunak kapital bizia murrizteko plana onestea; Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak plan horri buruzko aldeko txostena egin beharko du aurretiaz. Plan horretan, bermatu beharko da hiru urteko gehieneko epearen barruan, kapital bizia eragiketa arrunt kontsolidatuen ziozko sarreren % 110era murriztuko dela, baldin eta handiagoa bada.

    d. Organo eskudunak kapital bizia murrizteko plana onestea; Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak plan horri buruzko aldeko txostena egin beharko du aurretiaz. Plan horretan, bermatu beharko da hiru urteko gehieneko epearen barruan, kapital bizia eragiketa arrunt kontsolidatuen ziozko sarreren % 60ra murriztuko dela, %60tik gorakoa eta %110 baino txikiagoa edo berdina bada.

    e. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren baimena, edo, hala denean, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 55.3. artikuluan aipatzen den manuzko txosten ez-loteslea edukitzea.

    f. Toki entitatearen kontu-hartzailetzak txostena egin beharko du urtero, kapital bizia murrizteko planak betetzen diren ala ez jasotzeko. Txosten hori toki entitatearen Osoko Bilkurari jakinaraziko zaio, horren berri jakin dezan, eta bai Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari ere.

12. En los supuestos en los que de acuerdo con la normativa en vigor no sea necesario ni autorizar ni emitir informe preceptivo no vinculante, las entidades a las que se refiere el artículo 51 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, en el año 2026 deberán comunicar al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales cualquier operación que se pretendan formalizar tanto a corto plazo como a largo plazo. El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, en ejercicio de la tutela financiera, tomará razón de la operación a concertar.

13. Las operaciones de endeudamiento formalizadas por las entidades locales deberán ser notificadas al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, dentro del mes siguiente a su formalización.

14. De las operaciones de crédito autorizadas a las entidades locales o informadas y de aquéllas que sin precisar autorización o informe sean notificadas de conformidad con lo dispuesto en el apartado 12 anterior, el Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales informará posteriormente al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas a los efectos oportunos.

15. Igualmente se informará al Consejo Vasco de Finanzas de lo establecido en el artículo 115.2 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

**Artículo 46. Información a suministrar por las Entidades Locales.**

Las entidades locales del Territorio Histórico comunicarán al Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia, la siguiente documentación:

a. Hasta el 31 de enero del año 2026, la deuda viva existente el 31 de diciembre de 2025 y carga financiera satisfecha, así como la carga financiera y las nuevas operaciones previstas para el ejercicio 2026.

b. Hasta el 30 de abril del año 2026, la liquidación del Presupuesto correspondiente a 2025 e información sobre los gastos de personal a 31 de diciembre de 2025

c. El Presupuesto General para el año 2026 en el plazo de un mes desde su aprobación definitiva por el Pleno de la Corporación.

d. Antes del 31 de octubre de 2026, la Cuenta General del año 2025.

e. Trimestralmente, hasta el 24 de enero, el 24 de abril, 24 de julio y 24 de octubre respectivamente, la ejecución del presupuesto 2026 de acuerdo con la normativa en vigor.

f. El coste efectivo de los servicios del año 2025 antes de 1 de noviembre de 2026 con expresa referencia al gasto reconocido en el servicio de atención a la dependencia.

g. Trimestralmente, hasta el 24 de enero, el 24 de abril, 24 de julio y 24 de octubre respectivamente, el periodo medio de pago a proveedores.

La Diputación Foral, previo requerimiento, retendrá a los ayuntamientos y mancomunidades el 20% de las entregas a cuenta de la participación en los tributos concertados o el mismo porcentaje de las subvenciones y transferencias tramitadas por el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, respectivamente, en caso de que no remitan la información referida en el apartado b) anterior. Una vez recibida la misma se procederá al abono de la cantidad retenida. La suma de retenciones que se practiquen por no presentar la liquidación de diversos ejercicios no podrá exceder del 40% de la entrega a cuenta.

**TÍTULO VII**

**De las Normas Tributarias.**

12. Baldin indarreko araudiaren arabera ez bada beharrezkoa nahitaezko txosten ez-loteslea baimentzea edo igortzea, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 51. artikuluan aipatzen diren entitateek 2026. urtean epe luzera zein laburrera formalizatu nahi dituzten eragiketa guztien berri eman beharko diote Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari. Finantza babesaz baliatuta, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak itundu beharreko eragiketaren idazpenak egingo ditu.

13. Toki entitateek formalizatzen dituzten zorpetze-eragiketak hilabeteko epealdian jakinarazi beharko zaizkio Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari, formalizatu ondoren.

14. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak eragiketa hauek jakinarazi behar dizkio Ogasun eta Finantza Sailari, behar diren ondorioetarako: toki entitateei baimendutako kreditu-eragiketak, txostena egin behar izan ditueneko kreditu-eragiketak eta baimenik edo txostenik behar ez izan arren aurreko 12. apartatuan xedatutakoaren arabera jakinarazitako eragiketa guztiak.

15. Halaber, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari jakinaraziko zaio Euskadiko Toki entitateei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 115.2 artikuluan ezarritakoa.

**46. artikulua. Toki entitateek eman beharreko informazioa.**

Lurralde Historikoko toki entitateek honako agiri hauen berri helaraziko diote Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailari:

a. 2026ko urtarrilaren 31ra arte, 2025eko abenduaren 31n dagoen zor bizia eta ordaindutako finantza-karga, eta baita ere 2026ko ekitaldirako aurreikusten diren finantza zama eta eragiketa berriak.

b. 2026ko apirilaren 30era arte, 2025eko aurrekontuaren likidazioa, eta langileen gastuei buruzko informazioa 2025eko abenduaren 31n.

c. 2026. urteko aurrekontu orokorra, udalbatzak behin eta betiko onetsi eta hilabeteko epean.

d. 2026ko urriaren 31 baino lehen, 2025. urteko Kontu Orokorra.

e. Hiru hilean behin, urtarrilaren 24ra arte, apirilaren 24ra arte, uztailaren 24ra arte eta urriaren 24ra arte, hurrenez hurren, 2026ko aurrekontuaren betearazpena, indarrean dagoen araudiari jarraituz.

f. 2025. urteko zerbitzuen benetako kostua, 2026ko azaroaren 1a baino lehen, berariaz aipatuta mendekotasunaren arretarako zerbitzuan kontabilizatutako gastua.

g. Hiru hilean behin, urtarrilaren 24ra arte, apirilaren 24an, uztailaren 24an eta urriaren 24an, hurrenez hurren, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea.

Errekerimendua egin ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak bere esku izango du udalen eta mankomunitateen zerga itunduetako partaidetzaren konturako entregen % 20 atxikitzea, edo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak izapidetzen dituen dirulaguntzen edo transferentzien portzentaje bera, hurrenez hurren, baldin eta aurreko b) letran agertzen den informazioa igortzen ez badute. Informazio hori jaso ondorik, zenbateko atxikia ordaintzeari ekingo zaio. Zenbait ekitaldiren likidazioa ez aurkezteagatik egiten diren atxikipenen batura ezin da izan konturako entregaren % 40 baino handiagoa.

**VII. TITULUA**

**Zerga-arauak.**

**CAPÍTULO I**

**Impuestos directos.**

**Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.**

**Artículo 47. Indemnización exenta**

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se modifica el último párrafo del número 5 del artículo 9, de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedará redactado como sigue:

> "El importe de la indemnización exenta establecida en este número no podrá superar la cantidad de 187.272 euros."

**Artículo 48. Reducción por Tributación Conjunta.**

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se modifica el artículo 73 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedará redactado como sigue:

> **"Artículo 73. Reducción por tributación conjunta.**
>
> En los supuestos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 98 de esta Norma Foral se opte por la tributación conjunta, la base imponible general se reducirá en el importe de 4.896 euros anuales por declaración."

**Artículo 49. Escala aplicable a la base liquidable general.**

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se modifica el apartado 1 del artículo 75 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedará redactado como sigue:

> "1. La base liquidable general será gravada a los tipos que se indican en la siguiente escala:

| Likidazio oinarri orokorra, gehienez / *Base liquidable general hasta* | Kuota osoa / *Cuota íntegra* | Likidazio oinarriaren gainerakoa, gehienez / *Resto base liquidable hasta* | Tasa aplikagarria / *Tipo aplicable* |
|---|---|---|---|
| Euroak / *Euros* | Euroak / *Euros* | Euroak / *Euros* | % |
| 0,00 | | 18.080,00 | 23,00 |
| 18.080,00 | 4.158,40 | 18.080,00 | 28,00 |
| 36.160,00 | 9.220,80 | 18.080,00 | 35,00 |
| 54.240,00 | 15.548,80 | 23.210,00 | 40,00 |
| 77.450,00 | 24.832,80 | 29.810,00 | 45,00 |
| 107.260,00 | 38.247,30 | 35.700,00 | 46,00 |
| 142.960,00 | 54.669,30 | 65.430,00 | 47,00 |
| 208.390,00 | 85.421,40 | Hortik aurrera/en adelante | 49,00 |

**Articulo 50. Minoración de cuota.**

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se modifica el artículo 77 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedará redactado como sigue:

> **"Articulo 77. Minoracion de cuota.**
>
> Los y las contribuyentes aplicarán una minoración de cuota de 1.615 euros por cada declaración, conforme a lo previsto en el artículo 74 de esta Norma Foral."

**Articulo 51. Deducción por descendientes.**

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se modifican los apartados 1 y 2 del artículo 79 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedarán redactados como sigue:

**I. KAPITULUA.**

**Zuzeneko zergak.**

**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.**

**47. artikulua. Kalte-ordain salbuetsia**

2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 9. artikuluko 5. zenbakiko azken paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

> "Zenbaki honetan ezartzen den kalte-ordain salbuetsia 187.272 euro izango da, gehienez."

**48. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren ziozko txikipena.**

2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 73. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

> **"73. artikulua. Baterako zerga-ordainketaren ziozko txikipena.**
>
> Foru Arau honetako 98. artikuluan xedatutakoaren arabera baterako zerga ordainketa hautatuz gero, urteko aitorpenaren zerga oinarritik 4.896 euro ken daitezke."

**49. artikulua. Likidazio oinarri orokorraren eskala.**

2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, pertsona fisikoen errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 75. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da eta honela geratu da:

> "1. Likidazio oinarri orokorra ondoko eskalan agertzen diren tasekin kargatuko da:

**50. artikulua. Kuota murriztea.**

2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 77. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

> **"77. artikulua. Kuota murriztea.**
>
> Zergadunek 1.615 euro gutxitu ahal izango dituzte kuotan, aitorpen bakoitzean, Foru Arau honetako 74. artikuluan ezarritakoaren arabera".

**51. artikulua. Ondorengoen ziozko kenkaria.**

2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 79. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatu dira eta honela geratu dira:

“1. Por cada descendiente que conviva con el o la contribuyente se practicará la siguiente deducción:

682 euros anuales por el primero.

844 euros anuales por el segundo.

1.421 euros anuales por el tercero.

1.680 euros anuales por el cuarto.

2.195 euros anuales por el quinto y por cada uno de los sucesivos descendientes.

2. Por cada descendiente menor de seis años que conviva con el o la contribuyente, además de la deducción que corresponda conforme al apartado anterior, se practicará una deducción complementaria de 394 euros anuales.”

“1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplikatuko da:

682 euro urtean lehenengoagatik.

844 euro urtean bigarrenagatik.

1.421 euro urtean hirugarrenarengatik.

1.680 euro urtean laugarrenarengatik.

2.195 euro urtean bosgarrenagatik eta hurrengo bakoitzarengatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko aurreko idatz-zatiaren araberako kenkaria aplikatzeaz gainera beste 394 euro kenduko dira urtean”.

**Artículo 52. Deducción por ascendientes.**

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se modifica el primer párrafo del apartado 1 del artículo 81 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedará redactado como sigue:

“1. Por cada ascendiente que conviva de forma continua y permanente durante todo el año natural con el o la contribuyente se podrá aplicar una deducción de 328 euros.”

**52. artikulua. Aurrekoen ziozko kenkaria.**

2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 81. artikuluko 1. idatz-zatiaren lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“1. Egutegiko urte osoan etengabe eta jarraian zergadunarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzarengatik 328 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da.”

**Artículo 53. Deducción por discapacidad o dependencia.**

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se modifica el apartado 1 del artículo 82 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedará redactado como sigue:

“1. Por cada contribuyente que sea persona con dependencia o discapacidad, se aplicará la deducción que, en función del grado de dependencia o discapacidad acreditado que conforme a lo que reglamentariamente se determine, se señala a continuación:

**53. artikulua. Urritasunaren edo menpekotasunaren ziozko kenkaria.**

2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 82. artikuluko 1. atala aldatu da eta honela geratu da:

“1. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta, haren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da mendetasunedo desgaitasun-gradua zein den (gradu hori erregelamendu bidez ezarritako eran egiaztatu beharko da). Hona hemen kenkari horri dagokion taula:

| Menpekotasunaren edo urritasunaren gradua<br>Grado de dependencia o discapacidad | Kenkaria (euroak)<br>Deducción (euros) |
|---|---|
| Desgaitasuna %33 edo handiagoa eta %65 baino txikiagoa<br>Igual o superior al 33% e inferior al 65% de discapacidad | 906 |
| Desgaitasuna %65 edo handiagoa. Mendekotasun moderatua (I.gradua)<br>Igual o superior al 65% de discapacidad. Dependencia moderada (Grado I) | 1.294 |
| Menpekotasun larria (II. gradua)<br>Dependencia severa (Grado II) | 1.552 |
| Menpekotasun oso larria (III. gradua)<br>Gran dependencia (Grado III) | 1.935 |

El grado de discapacidad y de dependencia a que se refiere el párrafo anterior se medirán conforme a lo establecido en el Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, por el que se establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, y en el Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

La misma deducción se aplicará por el cónyuge o pareja de hecho que sea persona con discapacidad o dependiente y que cumpla los requisitos establecidos en este apartado.”

Aurreko paragrafoan aipatzen den mendekotasun- eta desgaitasun-gradua 2022ko urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan eta 2011ko otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera neurtuko dira. Haien bidez, hurrenez hurren, desgaitasun-gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen da eta Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak mendekotasun-egoera baloratzeko ezartzen duen baremoa onartzen da.

Kenkari bera aplikatuko da ezkontideak edo izatezko bikotekideak desgaitasuna edo mendekotasuna badu eta apartatu honetan ezartzen diren betekizunak betetzen baditu.”

**Articulo 54. Deducción por edad.**

Con efectos desde 1 de enero de 2026, se modifican los apartados 1, 2 y 3 del artículo 83 de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que quedarán redactados como sigue:

"1. Por cada contribuyente de edad superior a 65 años se aplicará una deducción de 393 euros.

En el caso de que el contribuyente tenga una edad superior a 75 años, la deducción a que se refiere el párrafo anterior será de 714 euros. La aplicación de lo dispuesto en este apartado requerirá que el o la contribuyente tenga una base imponible igual o inferior a 20.000 euros.

2. Los y las contribuyentes mayores de 65 años con una base imponible superior a 20.000 euros e inferior a 30.000 euros aplicarán una deducción de 393 euros menos el resultado de multiplicar por 0,0393 la cuantía resultante de minorar la base imponible en 20.000 euros.

3. Los y las contribuyentes mayores de 75 años con una base imponible superior a 20.000 euros e inferior a 30.000 euros aplicarán una deducción de 714 euros menos el resultado de multiplicar por 0,0714 la cuantía resultante de minorar la base imponible en 20.000 euros."

**54. artikulua. Adinaren ziozko kenkaria.**

2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 83. Artikuluko 1., 2. eta 3. atalak aldatu dira eta honela geratu dira:

"1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko 393 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 714 eurokoa izango da. Atal honetan zehaztutakoa aplikatzean, zergadunaren zerga-oinarria 20.000 eurokoa edo gutxiagokoa izan beharko da.

2. 20.000 - 30.000 euro bitarteko zerga-oinarria duten 65 urtetik gorako zergadunek 393 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga-oinarriari 20.000 euro kendu eta emaitza 0,0393z biderkatu.

3. 20.000 - 30.000 euro bitarteko zerga-oinarria duten 75 urtetik gorako zergadunek 714 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean, ondoko eragiketaren emaitza kenduta: zerga-oinarriari 20.000 euro kendu eta emaitza 0,0714z biderkatu."

**CAPITULO II.**

**Tasas y precios públicos.**

**II. KAPITULUA.**

**Tasak eta, herri prezioak**

**Artículo 55. Tasas y Precios Públicos.**

1. Con efectos desde el 1 de enero de 2026, los tipos de cuantía fija de las tasas de la Diputación Foral de Bizkaia se elevan hasta la cantidad que resulte de la aplicación del coeficiente 1,02 a la cuantía exigible en 2025.

   Se exceptúan de esta elevación las tasas que hubiesen sido creadas u objeto de actualización específica por normas dictadas en 2025, así como la tasa por la venta de cartones de bingo y la tasa por la expedición de la tarjeta de identificación de los beneficiarios de la tarifa única en el servicio de "Bizkaibus".

   Se consideran como tipos de cuantía fija aquellos que no se determinan por un porcentaje de la base o ésta no se valore en unidades monetarias.

2. Con efectos desde el 1 de enero de 2026, los tipos de cuantía fija de los precios públicos de la Diputación Foral de Bizkaia se elevan hasta la cantidad que resulte de la aplicación del coeficiente 1,02 a la cuantía exigible en 2025.

   Se exceptúan de esta elevación los precios públicos que hubiesen sido creados u objeto de actualización específica por normas dictadas en 2025, aquellos cuya actualización se realice de acuerdo a la evolución del IPC, así como los precios públicos por la prestación de servicios cartográficos, por el servicio de venta de publicaciones editadas por la Diputación Foral de Bizkaia,y por la prestación de servicios de reprografía por la Biblioteca Foral de Bizkaia, el el Archivo Histórico Foral y el Archivo Histórico Provincial de Bizkaia.

   Se consideran como tipos de cuantía fija aquellos que no se determinan por un porcentaje de la base o ésta no se valore en unidades monetarias.

**55. artikulua. Tasak eta, herri prezioak**

1. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren zenbateko finkoko tasak eragiketa honen arabera igoko dira: 2025eko zenbatekoari 1,02 koefizientea aplikatuko zaio.

   2025ean sortutako tasak edo urte horretan eman diren arauek eguneratutako tasak, igoera horretatik kanpo geratzen dira; era berean, bingo kartoien salmenta-tasa eta Bizkaibus zerbitzuaren tarifa bakarraren onuradunen identifikazioko txartela emateagatiko tasa, kanpo geratzen dira.

   Ulertzen da zenbateko finkoko tipoak direla oinarriaren portzentajearen arabera zehazten ez direnak edo diru unitateetan baloratzen ez dena.

2. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren zenbateko finkoko prezio publikoak eragiketa honen arabera igoko dira: 2025eko zenbatekoari 1,02 koefizientea aplikatuko zaio

   Honako hauek igoera horretatik salbuetsiko dira: 2025ean emandako arauen bidez berariaz eguneratu diren edo sortu diren salneurri publikoak, KPIren bilakaeraren arabera eguneratzen direnak, zerbitzu kartografikoak emateagatiko salneurri publikoak, Bizkaiko Foru Aldundiak editatutako argitalpenen salmenta-zerbitzuagatikoak, eta Bizkaiko Foru Liburutegiaren, Foru Artxibo Historikoaren eta Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoren erreprografia-zerbitzuak emateagatikoak.

   Ulertzen da zenbateko finkoko tipoak direla oinarriaren portzentajearen arabera zehazten ez direnak edo diru unitateetan baloratzen ez bada.

**Disposición adicional primera. Interés de demora.**

Con efectos desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre del año 2026, el interés de demora a que se refiere el artículo 26 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia será del 4,0625%.

**Lehen xedapen gehigarria. Berandutze-interesa.**

2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko ondorioekin, % 4,0625 izango da Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 26. artikuluan ezarritako berandutze-interesa.

**Disposición Adicional Segunda. Relativa a los gastos de personal.**

1. Las retribuciones por trabajos esporádicos en períodos nocturnos o festivos así como retribución por experiencia se regirán por los criterios que a continuación se indican.

   Los conceptos arriba indicados se calcularán, por cada hora de trabajo en los dos primeros y por meses (en 14 pagas) por cada 3 años de servicios prestados reconocidos en el tercero.

   De la retribución por experiencia se deducirá el importe del Complemento Personal Transitorio 2, que perciba cada empleado o empleada.

   En el supuesto de retribuciones por trabajos esporádicos en periodo nocturno o festivo, no procederá su percepción en aquellos puestos de trabajo en que para la determinación del complemento específico hubieran sido valoradas dichas circunstancias.

   Para el ejercicio 2026, dichas retribuciones se adecuarán siguiendo los criterios establecidos en el artículo 21, resultando que la siguiente tabla se incrementará para 2026 en el mismo porcentaje en que lo hagan el resto de retribuciones:

**Bigarren xedapen gehigarria. Pertsonal gastuak.**

1. Lantzean behingo lan gauez edo jaiegunetan egiten direnengatik ordaintzen diren ordainsariak eta esperientziagatik ordaintzen direnak arau hauen pean egongo dira:

   Aurrean adierazi diren kontzeptu horiek honela kalkulatuko dira: lehenengo bi kontzeptuetan, lanordu bakoitzaren arabera, eta, hirugarren kontzeptuan, hilabeteka (14 ordainsaritan), emandako eta aintzatetsitako zerbitzuen 3 urteko aldi bakoitzeko.

   Esperientziagatiko ordainketatik, enplegatu bakoitzak jasoko duen 2. Osagarri Pertsonal Iragankorraren zenbatekoa kenduko da.

   Gauez edo jaiegunetan egiten diren lantzean behingo lanengatiko ordainsarien kasuan, baldin direnak direlako lanpostuen berariazko ordainsariak zehazteko inguruabar horiek baloratu badira, ez da bidezkoa izango ordainsari horiek jasotzea.

   2026ko ekitaldirako, ordainsariok 21. artikuluan ezarritako irizpideen arabera egokituko dira. Ondorioz, taula honetako balioak handitu egingo dira 2026rako, gainerako ordainsariak gehitzen diren portzentaje berean:

| | TALDEA GRUPO<br>E/ Elkarte Profesionala Agrupación Profesional | TALDEA GRUPO<br>D/C2 | TALDEA GRUPO<br>C/C1 | TALDEA GRUPO<br>B/A2 | TALDEA GRUPO<br>A/A1 |
|---|---|---|---|---|---|
| Jaiak / Festivos | 9,58 | 11,32 | 12,47 | 15,13 | 18,48 |
| Gauetakoak / Nocturnos | 4,77 | 5,64 | 6,23 | 7,59 | 9,23 |
| Esperientzia / Experiencia | 20,11 | 18,94 | 17,14 | 10,82 | 12,63 |

2. El concepto 185 del programa 920108 departamento 07 seccion 02 está destinado a los pagos a la empresa Elkarkidetza para el abono de las cuotas correspondientes y los compromisos asumidos con la citada empresa, y su importe en el presupuesto habilita dichos pagos.

